




Bizkaitarrei
Bizkaieraz



www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com

Izadia zaindu VII.



Katua il da...



Doipuruaren
(Aita Santuaren)

Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

2013-2014 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 46. IKASTAROA IRU MAILLA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 7an

46. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 7 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
2095 0000 74 2000089615**

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 30 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errokoa.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Diseinua, maketazioa
eta inprimaketa: Ibegrafik
www.ibegrafik.com

LANDAJUELA, Anton, VIII.



Epaila

Epaila onen irugarrean, ilteko zoritxarrak ikuturik lagun barriak dakarskuez.

7gn ikoka, goragoraka, pozez gara. Fazisten guda-ontzia Baleares, urperatua ian oi da ta.

8gn. Ikustera etorri yatan emakuaren orritxu bat jaso dot otzaratxu bat beretzako egin dagiodan esaten. Gauza politik asko egiten dogu, estutasun da larriak aitzurik gagozanetan, baña zerbait egiten asten garanean, ezer egiten eztauskue izten, ondoegi bizi garala uste dabe-ta. Emakume aregaz zorretan naz.

9gna. Arat-onat eriotza makurra biraka ibilian, gero ta geiago estuten dauskue ustaya. Bein bere utsik izaten eztauan ipar baltzena gainberan datorkigu. Urrengo izango dan il ekitaldirako, 25 izango oi dira.

10. Atzoko albiste gaizto-txarra, ia egia bihurturik, zelako larritasun andiaren semeak garan, ezto esanbearrik. Dana dago eginik.

Gaueko amarrak dirala ordulariak dirausku. Une larritsu ontan, eztenaren ekiña nabaitzen dogu bu-larrartean: geldirik egon eziña. Aldameneko atee-tan kirrizk-karrazkak entzuten doguz, eta gu, noiz etorriko ete diran gure ateetara, mozollak lez gagoz atera begira.

Gure taldean gau ontan otsorik ezta sartu, baña ondokoenetan zer edo zer izan danaren barri ondo dakigu.

Eta biaramon goizean atea iriki ondoren, askarrik jo genduan lagunek lagunekana, auzokeon bat gixtiago dogun jakin gosez. Moro ederra eratsi eben lurrera Derio-n, 11gn goizean. Ezagunik ezgendum izan.

11gn egunean goizetik gauera, agirian dabilkigu igitayaren mustur zorrotza. Bein zorrotz, ete beste bien luze ta goseti, beti ta beti dizdiz. Eta orduak aurrera dagienean gure indarrak lurreraño doakiguz, iñoizkorik makalen.

Berrogetak gelakiden artean surru-murrua dabil txutxu-mutxu, beste batzuenen artean gureen dakoen bat be, izango ete da. Bederatziak inguru dira, ondolik kentzeko dauskuen lagun maitea nor dan ba-dakigu; lendik artu genduan erabakia bete bearean lenengo, azken gaua izango ebala esan yakon.

Andini aurreratu zan ilgai arengana, azkeneko gaua izanik, gerturik egoteko esatera.

Berba baltz eta astunago eziñai, garrantzi geiegirik ezeutsan emon gizon gaixuak, eta aurpegi errukitsurik erakutsi bez. Lurrean eban lo abiaren ganean eratsu yesarri zan, nasai ta baketsu; emazte, seme-alaba txiki-txikiak ta lagunak batzuei idazten. Esku tarteko lana amaituz geroz, ipuiñak esaten emon ebazan ordu larriak, deiaren begira. Pozez egoala esan eikean, ludi au itxirik, aurrerago joan ziran lagunakaz alkartzeko.

Gaueko amaiketako dangada otsagaz batean giltzak sartu ziran beren zulo estuan, da bira bigaz

atzeratu orman izan dan burdin musturra. Bein betirako galduko dogun adiskidearen izena uguzi dabe, arro ta errukirik bage, gertu daitela esanez.

Lagun errukarriak eztau gertubearrik, gerturik dago -ta gelditzen garanoi bere arimarentzat otoyak eskaturik, agur dagizkio benetako epai-egun andirarte.

Leturia-tar Joseba dogu gizon au. Lekeitio-ko batzokiko lendakaria, emaztea ta umeak izten dauz. Leturia-gaz batean 27 geiago be, badaroardiez, eta andrazko batek 40 eguneko umetxoa lur onetan izten dau, amaren bularreko esnea gozotzen asten yakunerako.

Kristo-ren ezaugarria paparrean, Kristo-ren izena ezpanetan Kristo-ren izenaz toki ta leku guztietan dabilzatenak egiten dauskuezan trizkantzakaz oarturik, Jaungoiko arenganako sinismena galdu baiñik doguzanak be, ba doguz. Il naiz, edo ta bizi, bardin dautsoe beste batzuei, zenbait ariñago il, ainbat bat obe litzakioela diñoenak be, gitxi eztira.

Orozko-ko semea, irurogeitik gorako urtetan, Lekanda dau abizena. Diru apurren bat aurkitu eutsiela etxean da guri lagun egitera ekarren, 6 urterako epaya lepoan arturik. Egunero alkar ikusten genduan-da, egunero gure egoeratzazko izkeltaldiak be izaten genduan. Eta bein, Jaungoikorik

ezegoalara asi zan esaten arimari egokiozan ipuñak emen amaitzen zirala, eta zorri gosetien janari 6 urtetan izan baño len, gurago ebala iltea be. Bere burua il eban.

Igandez jaso zan bere burua iltea. Bearturik gongozan sinestedun da sinisgabeak meza entzutera. Eta Lekanda meza entzutera gorengo tokira igon zan, eta meza amaitu besterik ez, bere burua egotzi eban bean eukan lur gogorrera, alantxe beterik barruan erabillen ametsa. Zatitua izan zan, inguru-minguruko orma odolez gorritu ta orbanduz. Illaren 13garrena zan.

15gn goizez urkatuak 4 izan ziran. Nortzuk eta nongortarrak izan ziranik ezin neban jakin.

Arratsalde zirkamendirako aukeratuak 6 izan ziran, baño, zergaitik eztakigu, ezebezan il.

16an eriotzatik urrindu diranak, eta bizialdiko ka-tepeturik izango diranak 68raño dira. Onein artean zan Areatza-ko Patxi Ugarte, nire adiskide miña: Txoko.

Txoko onek bere, bereak eta bost ikusirik zegoan. Bein, gau batez, aldamen batean da bestan etzunik erreskadan izan ebazan lagunek kendu eutsoezan. Zelako tau-padak izango ete ziran, Txoko-ren biotzean.





19. San Jose.

Lekanda-ren eriotzari ondo eretzirik edo..., zorrien abi ta janari izan zan andaluzitarrak be, bere burua goitik bera jaurtitea erabagi, eta egin bere bai. Jaurti eban bada, eta damutu izanik edo, eskegirik gelditu zan. Egin dauana zigortzeko, eskua ezarri eutsoen, bai ta ondo zigortu be, azur uts eukazan saietsondoak odoletan arte.

Egun ontako gauaren lenen orduetan txoko ta zulo danak arakatu dauzkuez, eta ajedreza kendu dauskue. Beste arratsalde batez bere, araketaldi bardin samarra gelatan izan ezgiñanean, oraingo onetan poliki arraztu dauskuez dindilizka izan doguzan soñekoak, eta bateri, España barria egiteko zakelean eukazan dirukondarrak kendu ta eroan.

25. iñoz loretuko eztan pozaren jabeak dirudigu. Itxaropen obearen jabe ezin gara izan. Gorrien alderdian diran giltzaperatuak onuntz ekarririk, gu bere Prantzira bialduko gaituela, aotik aora dabilkigu parra-parra. Lenago bere au lako arremanak izan ziran da, doguzan gauzarik bearrezkoenak birribildu ta toleztuten gabiltzaz, pozaren pozez goragoraka.

Jorrailla

Betirako joanak asko izan dira, geiago gara oraindiño praka estuetan bizi garanak, biotzearen taupadak baretu ezin doguzanak. Ordu ezta-baidatzuak, gau luze azkenik gabeak, egun urduriak doguz.

Sabela gozez dogu, askatasunaren egarriz gogoia, betiko ormatzarrak ikusten begiak asperturik, idizillaren keriza orpoetan jarraika dabilkigu, orkoroko atzazkalak bigundurik zorriak ilten doguz eta, zelai gogorrean lo giñaz jorraillaren laugarren eguneraño iritxi gara.

Gau onetan, gure bizi-toki dan etxe onen lau alderdietatik turut-otsak datorkiguz, zein baño zein indartzuago-ta, trizkantzaren bat egiteko deia izango zalakotan, geu bere gerturik gengoan, ateetara etorkunari ortzak erakutziz alkar ilten asteko. Franco-tarrak Lerida menperatu eben ezaugarriak ziran da, ezerezean amaitu zan, dana.

9an ezkontza bat izan genduan ta, espetxeratuena izan zan.

Eguneroko orri ta oarrak galdurik dotaz eta, Larrinaga-ko egiñak, ez egiñak, amaiturik bageko ikaral-diak, gau luze baltzak emen amaiturik (bukaturik),



Burgos-erako bideari ta, Burgos-eko bizitzari loturik emon dagidazan orain albisteak, barriro bere azken aldian Larrinaga-ri ekiteko asmoz.

1938gn urtea

Urte ontako Jagoba daunaren goizean izen-zerrenda luze-luzeak irakurri dauzkuez. Izentaturiko danak bildu, bestengandik berezitu ta, illazki, lastakinezko lo-kabiak, estalki berogarri, jan-ontzi ta abar artzeko bere agindu dauzkuez eta gerturik gagoz, zertarako ta norako izango ete garan jakin miñez.

Lokarriak eskuetan dabez, eta biñaka bat besteari aguro lotu gaitue. Al genduan eran bakoitzak bere gauzak bizkarreraturik, Zabalbide-ko aldapan beera garoardiez, Norte izeneko bultzin-geltokira, txapelokerrez esiturik.

Abelgorri, zaldi ta txarriak ba giñan lez sartzen gaitue bultzpudietan, eskuan loturik doguz eta lorrasuge bi doguz ate bakoitzean. Buru dan goardiazibillak aurreruntz, indar dagizku barrurantz. Fut-fut, fut-fut asi zan trena, atzean loturik ekarzan bultzpurdiak be, leunki jarraitzen eutselarik.

Zein bide artu dogu, nora garoardiez, noiz arte ta zertarako?

Nekezko fut-futean Orduña-ko aldatz gogorra garaitu dogu, eta indar barriz orniturik, aurreruntz dagio bere bideari.

Agur, Bilbo, agur, Bizkaia, agur, Euskalerrri! Bigarren aldiz garoardiez Gaztela-ko lur latzetara,

amorde biotz bageko onen doakabe ta otsein izango gara, aunitz urtetan.

Gaztela-ko galondo-lur billoztuak zearkatuz, Burgos urian artu dogu bidaldia.

Lurreratu gaitue. Onarte biñaka loturik, emen seinaka lotu gaitue. Aurretik atzeraño, esku-muturraren bitartetik beste lokarri ipiñi daukue, eta onan be, iges geinkelaren bildurraz eraginik edo, beste lokarri bat jarri daukue ertzekoai, besondotik besondora. Aida! entzun baizen, bizkorrik goaz, aurrera, oñakaz astintzen dogun auts gorria aoaz iruntsiten dogularik eguzki-galdan.

Ibiliz garoadiez bidean, besondoak urraturik, eta alako batean, orma uts dan etxe andi bat, gure bizi-lekua izango dana dogu, begien aurrean.

Irekirik dagoz, alderik alde atepak, barruratu gaitue -ta izan leiteken arrera eztsua damoskue.

Ardoaren ardaoz ustel itxurazko arpegi eukan batek lokarriak askatzean, Arrasate-ko Bidabu-ri iñotzan:

Zer dakazue?

-Soñekoak, ontzi t-abar, Bilbo-n izan doguzanak.

-Zelako epai mueta, zigorra dakarzuen jakin gura dot.

-Ba, gu, aspaldidanik ilteko geukiez, eriotzarako gara.

-Poztuten naz. Or nonbaiten zulo sakonak doguz, gizon-aragirik aspaldi ontan jan bagerik, orain ez-

kero gosez izango dira, betekada ederrik izango dabe zeuon okelaz. Ongi etorriak izan zaitez!

Eskubitor eta besondotik loturik nengoan da, minberaturik neunkan besondoa ainbat ariñen askatze piti bai zabaldu neban, eta berak, askatzaileak berba oneik eukazan aoan dindiliz: Arpegia eratsiko dautsaut satika zirkinik egiten ba daustazu.

Barruan gintzazan arren, oraindik barruragoko toki bateraño sartu arazo ginduezan, eta txoko batean ikusten doguz moltzoturik Dueso-tik Bilboara, eta Bilbo-tik onaño ekarri doguzan illazki, otz berogarri t-abar, gure ondasunak.

Illazkien batzuen barruetan bizerra moztzeko labanak eta tresna debekatuen batzuk dagoz. Ezin gara areikana urreratu, esturik eta larririk dira jabeak, agertzen ba dira agertu, zer izango dan ez-takielarik.

Belandia gasteiztarra zan, eta guda-sua biztu zan ezkeru emen, Burgos-en eukan etzauntza. Nagusi-ordezkarietzaz eginik eukan ezaupide andia.

Bilbo-tik Burgos-era joan giñanon artean be, ba ziran Gasteiz eta arabarrak, eta Belandia-rengana jo eben larritasun artatik urten al egien.

Illazki ta loturak arakatzeko ordua etorri zan. Eginkizun au betetako jabeari dei egiten utsien, eta jabearen aurrean, min da errukirik bage, zabal irikitzen ebezan zabaltzeko ziran guztiak.

Belandia zeregindunaren ondotik ez-zan kentzen, bai ta txutxu-mutxuka esan be bai, arakatzeari berrira, ondoegi begiratu bear ezirak zeintzuk ziran.

Belandia-ri eskerrak, dana burutu zan bakez.

Eskortaturiko ardiak lez orduak eta egunak emonez gero, seika ta zazpika gela txikietan, Dueso-n lez, sartu ginduezan.

Illabete batek beste bat atzetik ekarran, era ontan emon genduzan, Gabon gaua iritxi zan arterañoeko egunak.

3 euskeldun eta maketo bik batean egin genduan Gabon-aparia, eta amaitu besterik ez, ona emen non irekiten dauskuezan ateak, obeto entzun al izateko, zer eta zertarako izango zan ez genkiena.

Giltzaperatua gaztea, orri batzuk eskuan eukazana, izen-zerenda luze bat irakurtzen asi zan, eta larritasunaz eta pozaz oreka eginik, Prantzira begira jarri ginduezan gogo, arima, odol eta gintzazan guztia.

Trukearen itxaropena ziplo itxartu jakun, bakoi-tzak bere gauzatxoak arturik, toki aldaketa besterik ezkenduan egin, izentaturikoak alde batera, besteak bestera.

Ama ostikoz jotea, motzago ta itxisiago ziranen arpegiak jagolienak txeratsu biurtu ziran, bildotsak baziran otsan egin ziran. Bizerra kendubarri etzeukana, gaua ta belu izanagatik, bizerkolara bialtzen eben txukuntzera eta itxura ona artzera.

Onen besteko maitasun ondo nai eta zurikeriz, zer adierazoten ete uskuen?



Bakez gintzazala, argituko zan eguna gogoangarria izango genduala t-abar.

Gauaren beranduko orduetan lo egiteko agindu euskuen, loaren izpirik bage emon genduan gaba, Prantzian edo nonbaiten izango genduan askatasunaren ametsez.

Iragarririk izan dogun egun andia argitu izan da, ezta baiña uste genduan lako andia.

Gertu dauskue bere biziko tokia, tellaperik nasaiena mezatarako. Ongien apainduriko mezamaia: Begiko eztoguzan ikurriñak be, emon doguz bat bestearen ondoan jarririk. Papparrean dominadun gozonezkoa mezamaiaaren alde batean, eta arteko zan osagille bat be, pozaren pozagaz zorabiatu rik lurrera jausiko gintzazalakotan, laguntasuna eskeintzera etorria.

Orain arte izan doguzan mezetan zutik eta tente izan bear genduan, oraingo onetan, ez. Jezartokiak doguz.

Abadea meza esaten asi da, entzulek urduri gagoz, "erbia" norako bidean ipiñiko ete daben.

Meza entzunez gerokoaren begira gagozalarik, mezaemollearen aldameneko apaiza orrian idatzirik eukena irakurteari emon dautso. Aren berbak emen:

Une batetik bestera, edozein ordutan ilteko izan diran giltzaperatuei, gure Franco andiak gaurko egunez

jakinarazoten dautsoena, esker neurri bageko gogoangarria da. Españar danok eta guztiok aintzakotzat izan bear geunkan gizonik andienaren biotz zabal andia ta biguna errukitu da, zuetzaz. Azaldu bearrean zarie, zuok be, biotz berotasunezko esker bizia, alaikorra, azkenik bagea. Ilteko izan zarenok oraindik aurrera aloso bizitzeko zoriaren jabe egin zaitue ta.

Agur itxaropen, agur Prantzia, agur askatasun da, agur konorte galtzea.

Uste eben konortea galduko gendula, ori gaitik izan zan osegillea etortea. Konorterik ezeze, beste ezerik iñork ezaban galdu, eta ba gendun askatasunaren bizitza sutua izan zan.

Danok gengoan burumakur, sinestu eziñik, erioztari igez eginik bizi aldirako kerizpan egoteaz.

Ez gora Francorik, ez viva Españarik gure artean ezan izan. Askatasunaren ametsak lurra jo euskun da, betirako barrutian bizibe arrak oldozkor eta arpegiluze laga gaitu.

Beste gora-berarik bage elizkizuna amaitu zan, len gengoan lekuetara garoadiez.

Bigaramon goizez aterik ate datorku espetxe nagusia poz ta esker onik erakustera emon ezkendualako, barrutik oñetarañoko aserririk bizienaz, esaten euskula: On-onak izango ba-ziñe, ogein bat urtean beteturik zango zendukie barruen egotea.



Idizilkadak.

Egun baten gure atearen aurreran plizti-plaztada andiak ziran, ezgenkian baiña nortzat eta ezeren barririk. Ixildu eta barrien barriz lengo ekiñari elduz asi ziran, plizti-plaztak zenbatzen asi giñan eta 65 onean asi zan gaixo andia: ai amaka!; ai ta oi ama deika.

Nor zan da zergatik jo eben oraindiño eztakigu. Gelako atea zabalduz gero ormak odolez beterik eta orbandurik ikusi genduzan.

Kaiola txikietatik at.

Amaitu jakuzan kaiola txikietako egunak be, eta oraingo egotera barrian toki nasaiago dogu: 100, 200, da 400-eko taldetan ipiñi ginduezan da. Euririk etzanean aize ta al genduan eratan emoten genduan eguna, eguzkirik izatean kizkeldurik, euria zanean barruan 400 gizon alkarren ganean, zankadea noruntz emon ezgenkialarik.

Txar-txarrak, garito gaiztoak, esantxarrekoak gintzazan. Aberriatzazko zorra bete gendualako. Gaiztoak gintzazan, bai baiña zelakok aurkitu eta beraiekaz bizi bear izan genduan urteetan.: Aita il ebana, aitaren gibelak jan ebazana, amari lapurretan egin geroz il ebana, anaia erre ebana, amagi-arreba ta ezkonarreba il ebazana e.a.

Eskutitzak.

Astean bakar bat baño ezin geinkean artu. Bi izaten genduazentotan bat aukeratu, bestea osterata tamal andiz, berton bera laga bear. Guraso, emazte ta anai-arrebagandik eskutitzak izan bear eben, andragai, edo ta adiskiden batengandik igorria zanean, zer izaten zan a, Jaungoiko laztana!

Etxera egitean be, bateri egiteko baimena genduan, agiria barriz laburra ta argi egiña, apurtu egiten eben alan izan ezean.

Aldi ontako espetzeratuek, ETA-ko ta besterik ikurrindun partxisean jokutzen nasai-nasairik eguzkia artzen, idaztitegian idatziak aukeratzen, bakaldun-kumek dirudie.

Gaxoen alderdi bat be, bagenduan, oak beterik izaten ziran, obe zan gaxotu ez, aintzakotzat etziran artzen da. Osagille giltzaperatuek arduratzan ziran ixil-mixil eta bazter izkutueta, al eben laguntza gaxoai eskeintzen.

(Jarraituko da)





Katua il jakon gure nezkazarrari. Olako piztitxu baten erio-tzak ezin izan lei leba andirik, baña Maintoni neska zarra, negarrez urtu zan. Bere bizitza luzean beste adizkiderik ez eban euki.

Gaztetan polit-polita ei izan, baña eskonge geratu zan. Ludiko gauzak alakoxeak dira eta. I txasontzi bateko buru zanager paseo batzuk egin ebazan Volantin egurastokitik. Gero ezer ez, itxasontzia joan zalako. Ainbat eguneko negarra euki eban, baña azkenean aitzu jakon.

Correo txaideko (kaleko) bere etxean bizi zan. Eta bizitza bakartia, bizitza ituna dalako, katu bat ekarri eban. Bizar luze-luzea zan eta sagurik ez eban atrapau sekulan.

Maintoni begiko egin jakon.

Bere bee ondoan egin eutsan oirik bigunena. Eta negua zanean berokin ondoan lo eragiten eutson.

Seme bat baleu moduan maite eban. Eta jan zer gero, jan! Edozelako janaririk ez eutson emoten, janari meeak baño.

Semerik, ez senarrik ez daukan neskazarrak, katua maite bear ba. Baña betikoak ez gara gu be, eta abereak gitxiago. Guztioi eriotzea jatorku.

Maintonen negarrak negar biziak ziran, eri txarrak katua eroan eutsolako. Zaarren zaarrez, narras ebillan eta areto nagusitik suteko berota-

suneraño be ezin joan izaten zan. Bizar luzeak jauzi jakozan eta narruko uleak be zeaztu jakozan. Arek eukan itxurea !

Katuaren bizitza zala ta, otoi andiak egin eroazan geure Mainton zarrak, baña Balbea sartu zanean katua eroan eban.

_"Ai nire katutxu pintoa, neure bizitza poza, neure egun tristen argia, neure bakar

aldien izarra!" eta alako andiak iñoazan neskar gaxoak. Correo kaleko etxe ederrean, negar galantak entzun ziran. Egurastuten ebiltzanak, ikaratuta geratzen ziran."Zer jasoten dok or gero?.

Maintonek bere antzeko adizkide bat eukan. Nezkazarra axe be. Ezkonduko ei egoan, baña gaxo il jakon senargaia. Lantzean bein biok batzen ziran euren nekeak eta samiñak edestuteko asmoz.

Katutxuaren eriotz-egunean eldu zan Maripe. Lagunaren negarrak entzun

ebazanean,berak be negarrari eragoion.

-Eta orain zer egingo dozu, ba? Katua obiratu bear da!

-Ez neuk! Olakorik neuk ez neuke egingo. Katu zoragarri au ezin lurparatu geinke.

-Etxean be ezin gorde zeinke ba. Ustel-atsaz beteko jatzu bizitokia.

-Zer egingo dogu ba? Au zoritxarra! Neu il baintzan, neu!

-Erre egin daigun erre.

-Ez orixe. Ara asmo bat bururatu jat,otu jat. Paketetxu batean bilduta eroan egizu. I baizabale-ra jaurti zeinke. Urak eroan dagiela bere altzoan. Olako katutxu maitagarri batentzat leku oberik ez dago. Ganera itxaso zabaleraño joango da. An arraiñak jango dabe ta kito.

Mariperi ez jakon txar irudi bere adizkidearen itza. Bien artean egin eben paketetxua. I ngi zuriz ogei toles egin eutsen, bai? Eta sedazko lokarri bategaz lotu eben.



Ondartza edo Arenal ondora eldu zan Maripe, paketetxua eskuan ebalá. Baña zelan jaurti? Ertzaiñak ikusten ziran alde guztietatik. Deustuko I kastola Nagusiraño be eldu ziran. Baña, alperrik. Antxe be ertzaiñak ziran. Zer egin ez ekian. I baira jaurtitea baño errezagoa zan edozer. Olako baten, barriro, ganean itxi eban bere pakete dotorea. Aldendu ez zan aldendu, diadarka non jatorkon ertzain bat: -Emakume, au aiztuta itxi dozu, ezta?

Maripek eskerrak emon eutsozan eta eskupe-kotxu bat, ain ertzain ona zanari. Zer egin ezekian. Alako baten Ondarreta edo Getxoko bultzia artu, bai? Eta itxasoraño joatea otu jakon. Esan baño leenago egin eban.

Bultzian sartu zanean, milla peketetxugaz joaten dan errekadista baten ondoan jesarri zan. Jatsi zan Ondarretan eta paketetxua artu bere bai. I txas ondora joan zan. Gizon eta emakume asko

ikusi ebazan ondartzan. I geri ebiltzan.

Zer egin? Bilbaon bertan baño gatxago zan paketea uretera jaurtitea. Buruko miñaz Bilbaoratu zan. Correo kalean sartu zan bere paketeagaz.

-Ai Manton adizkide ona! I baira ezin jaurti izan dot. Auxe ta auxe jazo jat. Zer egingo dogu?

-Ara,ba, sua biztu edo isiotu daigun. Baña surik ederrena. Usainezko sua ta antxe erreko dogu. Katuaren azkena alangoxea izan da!

Neska zarrak piztu eban surik ederrena.

Kolonia-ura bota eban eta garrak dirdirka asi ziranean, artu paketetxua eta zabaldu eben. Zer zan a? Katua ez eban bildu ba? Katuaren orde z urdaiazpiko ederrena baillatu eben !



Euren ikarea galanta izan zan eta irribarreka alkarrri iñotsen: Zer esango ete dau katutxu illa aurkitu daunak?

Laster, beste katutxu bat ekarriko ei dau geure Mantonik!

Correo kalean dan ezkerro, jakingo dogu.





Doipuruaren (Aita Santuaren)

Aizean zear eldu jakun doipuruaren itza,
Markoni jakintsuak azaldu dauen
tximist-uenen bitartez.

I tz ori mundua mundu danik eta ona, leenengo
entzuna izan da toki guztietan.

Doipuruaren itza, kistarrak eta kistar
eztiranak, orok entzun izan dabe maitasunez.

I ndar andia dauke alde onetan Erromako itzak.

Doipuruak guztiai mintzo ori bialdu dautse,
leenengo bere artaldekoak diranen artean asita.

“Neure biotza guztienganako maitasunez beterik dago”
inoan eta itz orrein ikurra diran oneik geiagotu ebazan:
“oro ots egiten deusuet alkarren arteko ikusieziñak
itxiteko eta batasunean ludira jatsi daiten lan egin dagizuela”.

T zparringi guztiak itz oneik erabilli dabez eta sano
goratuten dabe Doipuruak agertu dauen bake-gogoa
aspaldiko aldi oneitan. Kristoren jarraitzalle benetakoan
antzean, beti didar egiten dau, guztiak bakean iraun dagientzat.
Bana bake ori ez da askok ulertuten dauen eran.



Doipuruak agintariai itzala eukiteko aginduten
dauen arren, itzal orrek eztau izan bear edozelakoa, ez.
El orden constituido darabile katoliko dirala diñoen
beredinek, baña katoliko onak izan daitekez agintarien
aurka dagienak bere, bear dan erazko aala ez badauke.
Bakea ona da, baña bake ori bidebagean,
injustizian jarria bada,
orduan bakea barik gudea egin bear dau katolikoa danak.
Doipuruaren itzak ez dagoz orren aurka, itz orreik
euren erara ulertu gura dabezanak ots andia egin arren.

Lauaxeta
1933-V-27

IZADIA ZAINDU EUSKAL TOKI-IZENAK MUNDUAN eta EUSKAL EDESTIA VII.



K.a. 1.600 urte ariñago XVIIIn leiñu aldian, Faraoiak Iksoren aurka asi ziran, eta Almesek Faraoien XVIIIgarrengo leiñuaren sortzailleak 1.570-1.075 urte bitartean kaizertza barriari irauteko indarra emon ondoren, Iksoak bota ebezan.

Ortik aurrera eta 1.570-1.304ko urte bitartean, Ejiptoren jendekuntzari esaten dautsoe urrezko aldian bizi zirala.

Ejipzioak, beste sarraldi baten bildur, Siria ta Palestina Eufrates ibairaño Iparraldetik mendetu eben, eta Ego aldetik Nubiako jabekuntzak Napataraiño zabalduta, Ejipziotarrak Lur Arteko itsaso⁽¹⁾ inguruan egon ziran errien antolatzaillle edo artekari⁽²⁾ nagusienak izatera eldu ziran.

K.a. 1.375-1.358 urte bitartean, IVn Amenoteppek euki ebazan indar guztiak, erlijiozko monoteista gurketak gaintzeko alegiñean ibili zanean, Ititak Siria kendu eutsen eta basamortuaren etxe gabeko edo alderraiak⁽³⁾ Palestinan asi jakiezan sartzen.

K.a. 1.290-1.223 urte bitartean, XIXgarrengo leiñuen Faraoiak, IIn Ramsesetik asita, Siria ta Palestina berrezkuratu ebazan, eta Libio ta Egeotarren sarraldiak geratzeko Ititakaz alkartu zan. Nai ta, Libio eta Egeotarrak 1.190-1.158 urte arteko IIIIn Ramses'en denboran, Siria ta Palestina ostera berrezkuratu.

Faraoiai kanpoko lurralde orreik galtzeak, diru arloetan naasiak ekarri eutsezan, eta euki eben aginpidea makaltzen joan jakien.

(1) Lurrarteko-itsasoaren = mar Mediterraneo. (2) Artekari = arbitro. (3) Alderraiak = nòmadas.



K.a. 1.075-940ko XXIen leñuen urte artean Faraoiak, Ejiptoren bealdeko Tanisetik jaurkintzen eben bitartean, Amonen apaizak Tebasetik asita, Ejiptoren goialdian agintzen eben eta etsaigo edo zatiketa au, Iparraldean K.a. 940-730 XXIIen leñu eta K.a. 725-710 urte bitartean XXIVn leñuagaz iraun, Ego aldean K.a. 761-715 urte bitartean XXIIIen leñuagaz iraun eban.

Areik eta Etiopitarrek Ejiptoren jabetza artu eben arte, eta XXVn leñuagaz K.a. 657rarte jaurkitu.

K.a. 670n urtean, Asirioak asi ziran Ejipto menperatzen eta K.a. 654 urterarte egon ziran.

K.a. 664-525 urte artean Faraoiak, denbora gitxi orren barruan jaurkintza berrezkuratu naian egonda, Persiako IIen Kanbises agertu jakien, eta Ejiptiotarrak menderatuta, Satrapi jaurlari baten azpian ipini ebazan.

K.a. 332an Alejandro Aundiak Persak bota ebazan, ta Alejadriako Uri Nagusia eraiki ondoren, bera, K.a. 323ko urtean il zanean, Alexandroren gudal

nagusi izan zan Tolomeo-ren aginpean geratu ziran. Eta Tolomeo Faraoi izendatu ondoren, Tolomeotarren leñuai asiera emon eutson.

Tolomeotar leñuak, Elenikako jendekuntzaren eragipenean⁽⁴⁾ indartu ta Siria ta Palestinagaz jabetuta, euren agintaritzza, K.a. 30an Kleopatra beren burua eraill eben arte iraun eban, eta ortik aurrera Erromatarren kaizartzapean geratu ziran.

Ejipto ortik aurrera, Bizanziotik jaurkitu eben erromatarrek, areik eta K.o. 641ean Mauritarren mendean geratu arte.

Ortik aurrera, Ejiptoren Islamizaziñoa asi zan eta arabiar izkuntza geratu zan izkuntz bakar lez.

K.o. 969-1.171ko urte bitartean, Fatimitaren mauritar leñuak, Kairo, Uri nagusi lez izendatu eben, eta K.o. 972an Azhar mauritar eleiza islamitarren ikastetxe nagusian biurtu ebenetik, Munduko len goi ikastetxe edo Ikastetxe Nagusia eraiki ebala esan leike.

(4) Eragipena = influencia. (5) Mairu erregearen = sultan. Mairu-erregearen=Sultan.Mairu-erregearen=Sultan.

1.170-1.250 urte bitartean, Ayubitaren mairu errege leiñuak Siria berrezkuratu ondoren, mameluko gudariak baztertu ebezan, eta oneik gero, euren gortasunean, etorriko ziran mairu erregearen⁽⁵⁾ jagole izatera lortu eben.

1.517an Ejipziotarrak, Otomanoen⁽⁶⁾ menpean jauzi ziran, eta oneik ejiptotarren jaurkintzarako Baja jaurlari bat ipini eutsen.

1.798an Napoleonek Ejiptoren menperatasuna asi eban, Ingelesak Indiagaz euki eben salerosketaren gora berak moztuteko. Baiña au be, Ingelesak Otomanoakaz bat eginda 1.801ean bota eben.

1.805ean, Mohamed Ali izendatu eben Ejiptoren Baja jaurlari lez eta mamelukoak ezereztu ondoren, onek leiñu ondore bat irasita, 1.952ko urterarte Faruk erregeagaz iraun eban.

1.820-1.822 urte bitartean, Sudanen egoan Funji erreñua menperatu eban.

1.866an Ismail Baja jaurlariak Jedibe Baja baiño izen aundiagoa artu eban, eta bere jaurkintzapean 1.869an Suezeko itsas xidor edo ugaska zabaldu zan.

Sudaneko menpetasunari amaiera emon eutsoen, baiña ortik aurrera Ejiptoren barneko jaurkintzan, Frantzia eta Ingelesaren eragipena asi zan garai-pentzen.

1.882an Ingelesak Ejipton, guda legez eskua sartu eben sortu zan iraultza bakeztuteko, eta ortik aurrera eurak izan ziran jaun eta jabe Ejiptoren jaurkintzan.

1.898an, Ejipto ta Inglaterraren gudalozteak alkartuta, Sudanek 1.885ean lortutako askatasunak ostera menperatu ebazan, ta bien arteko mendekua ezarri eutsoen.

Munduko leenengo guda nagusian Turkiak, batzango zale kaizertzakaz bat egin ebenean, Ingalaterrak amaitutzat emon ebazan Ejiptogaz euki ebazan artu emon guztiak, eta berak Ejipton irasi eban zaindaritza, 1.922ko urterarte iraun eban, naita oraindiño Suezeko Ugaskaren⁽⁷⁾ kontrola eta Sudanen bien arteko mendekua eroan.

1.868-1.936 urte bitartean I Fuad bizi zanak 1.917-1.922 urte bitartean Ejiptoko Sultan egin zan, ta errege lez 1.922an izendatuta, 1.936an ilzanean, bere seme I Faruk´eri aldikatu eutson.

I Faruk (1.920-1.965) 1.936-1.952ko urte bitartean errege egin zan ondoren, Ingelesen aurkako politika eroan eban, eta ez eutson Europako ardatzaren indarrari aurkako gudarik agertu 1.945eko urterarte.

1.958an erritik kanpora bialduta, 1.959an lekaide sartu zan.


Ejipto, Palestina zatituaren aurkakoa agertu zan, eta 1.948-1.949 urte bitartean Isrraelegaz borrokatu zan.

1.952ko Uztaillan, Mohamed Naguib gudar nagusiak bideratuta eta Gamal Abdel Nasser koronel ordezkariak antolatuta, I Faruk erregea kendu eben jaurkintzatic eta bere seme In Fuad (1.952-1.953) izendatu, gero 1.953an au be erregetzatic kenduta, Naguidek euren agindupeko errepublika irasi eban.

Ejipzioak Isrraelekin ortik aurrera, badakigu zenbat eztabaida euki dabezan 1.979ko Epaillan bakezkoak egin arte. Ejipto gaur, ONU, OUA eta Mauritarren Alkargoko kidea da.



(5) Mairu erregearen = sultan. Mairu-erregearen = Sultan. Mairu-erregearen=Sultan. (6) Otomano = Turco. (7) Suezeko ugaska = Canal de Suez.



2.3. Greziaren edesti laburra.

Grezia asierako baten, Lurrarteko Itsasoaren inguruko erri leiñu guztiak lez, leiñuen auzotasunezko laterrietan antolamenduta bizi ziran luzeroko denbora aundi baten, euren sariak irabazten asi ziran arte.

Mundu onen goimaillako jakintza, Tupiki edo brontzezko Aro Aldia esaten dautsoe, K.a. 3.500-1.400 urte bitartekoari.

Grezian, K.a. 2.800 urte brontzezko denbora orreitan asi ta, Elenikako erdiugardean Laterrituko Uriak ezarri ziranen artean, erri jakintza asko sortu eta gaienduta⁽¹⁾ desagertu ziran.

Garrantzidunak Kreta ugartearen (kretense) eta geroago K.a. 1.700 urte inguru Mizenaseko jendekuntzatik sortu ziranak.

Lortu eben goimallako jakintza, ez zan eurengandik sorturikoa, Asia ta Ejiptoko jakituriaren alkartasunezko eragipenetik, eurak artu ta edertu egin ebana baiño.

Europa edo Lur nagusi onen erditik joan ziran Akeo ta Elenotarrak, Kretaren jendekuntz jakintzaren eragipeneko⁽²⁾ mende egon ziran aintziñako denboretatik eta Iparraldeko erri neolitikotik.

Kretak jakintzan euki eban jendekuntzazko bereketaren⁽³⁾ ondorioz, K.a. 1.700 urte inguru: Tirinto, Korinto eta Tebaseko Uri nagusiak eraiki ziran.

K.a. 1.400 urtean Akeotarrak, Kretako ugartearen egon zan Knosos gaztelu edo jauretzea ezereztu ondoren, Mizenaseko jakintza sartu zan bere ederenetariko jendekuntz garaian. Gizaldi bi geroago, Peloponeso, Greziaren erdian, Asia Txikerraren itsas-bazterretan eta Txipreko ugartearen zabaldu zan.

K.a. XIIIn gizaldian, Iparraldeko Doriotarren erasoaldi edo sarraldia euki eben, eta jakintzan, Akeotarrak baiño atzeratuagoak egon ziralako, Greziaren jendekuntza berakada galanta emon da, jakintsuak Greziaren erdi mendea zala, esan eben.

Dorioak, Peloponesoan kokatu ziran batez be, eta Espartako Urira eldutako Akeo ta Dorioen jendekuntzazko elkartzearen, adierazpena da.

Joniotarrak batera, egunaren neurria artu gabe eta itsas aldetik astiro, Atikako Uri nagusietan eta batez be Atenasen asi ziran bakezko goxotasunean sartzen.

Eleno, Akeo, Dorio, Eolio ta Joniotarrak, sekula ez eben lortu Greziaren erri guztiarentzak agintza bakar bat, politikako jaurkintzan guztiz, askatasunaren Laterritasunezko Urietan oitura zar lez antolatuta egon ziralako, euren artean beste loturarik eukin gabe, enda, izkuntza, erlijioa eta euren jakintzak emoten eutsoena baiño.

Ardurak ondo zaintzeko, geiago bear eben ?.

(1) Erri- jakintza asko sortu ta gaienduta = sobresalir resplandecer. (2) Eragipeneko = influencia, impulso (3) Bereketare = asimilación.

K.a. 800-600 urte bitartean, laterritutako Uri oneik Ejeo itsasoaren ugarteetan, Asia Txikerraren itsas-bazterretan, Joniko itsasoaren ugarteetan eta Lurrarteko itsasoren izparterretan: Italian, Napoles eta Tarento; Frantzia, Marsella; Erdi Ugarte onetan eta Jeronaren lurraldeko Rosaseko itsas golkoan, Ampurias eta Rosas; eta Afrikan, Libiaren Iparraldean Lurrarteko itsasotik 15 kilometrora dagoena, Zirenen koloniak edo salerosteko Uriak.

K.a. 600-300 urte bitartean, Greziatarren jendekuntza⁽¹⁾, beren urrezko garaipenera eldu zan: Etxagintza edo Eraikintza⁽²⁾, Irudigintza edo zizelkaritzan⁽³⁾, Olerki⁽⁴⁾, Eraman ona edo Jakin zaletasunean⁽⁵⁾, Antzerkian⁽⁶⁾, Matematiketan eta Natur jakintzan.

Greziak, Atenasen bere jaurkintzarako, Demokrazizko legean antolatuta. Esparta alderantziz, bikaintasunezko gudaren antolamenduan, eta beste Uri batzuekatz: "Korinto, Kalzis, Korzira⁽⁷⁾, Mileto, Sardes, Fozea, Lesbos eta abar, goimallako goraldi edo aurrerapidea lortu eban.

Asiaren lur-arloetan ikusi dogun lez, K.a. Vn gizaldian Persak, Europaren mendeko bideak zabalik eukiteko, Griegoak menperatu gura ebezan, Griegoen Uriak alkartuta baiña, eta gudaindarrak Atenas ta Espartaren aginpean bideratuz: Maraton, Salamina ta Platean⁽⁸⁾ astiñaldi ederrak artuta, alde egin bear izan eben.

K.a. 448an Kaliaseko bakearekin amaitu ziran Persa eta Griegoen aurkako guda⁽⁹⁾.

Espartarrek, euren indarrezko arrotasunean, Atenasen nagusitasunezko jakintasunagaitik bekaitz eta jeloskor edo ixterbegituz urdurik ibilita, Uri guztietatik Atenasen etsai guztiak batzen asi ondoren, K.a. 431-404 urte bitartean Peloponeson, anai arteko guda asi eben.

Espartak iribasle urten ebalako, beste alkartasun batzuk be egin ziran eta or asi ziran etenbako borroka Greziako Urien artean.

Uriek guztiz indargabetu arte ekin eutsen eta Greziaren Iparraldeko Mazedoniatik In Filippo⁽¹⁰⁾ erregea agertuta, ez eben euki indarririk espartar mendetik iges egiteko erdi ugarte ta Grezia osotzen ebazan ugarte guztietatik.

Bere seme Alejandro aundiak⁽¹¹⁾, Persak K.a.334an Granikon, eta K.a. 333an Issuseko gudatan menperatu ebazan, eta K.a. 326an bere agintaritzan Greziatik Indiaraiño zabaldu eban.

323an Alejandro Aundia il zanean, Grezia, Alejandroren guda nagusiaren eskuetan geratu zan eta ostera lengo Urien jaurkintzazko antolamendua artu barik, aurkako alkartasunetan geratu zan bananduta.

Zori edo egoera orreik, Greziako atear erromatar indartsuari zabaldu baiño besterik ez eutson egin eta erromatarrek K.a.148an Mazedonia menperatuta, Grezia osoa erromatarren lurralde lez geratu zan.

Atutxa'tar Paul

Zornotza'n 2.013an Urtarrillaren 15ean



(1)Jendekuntza = civilizaciòn. (2)Eraikintza=arquitectura.(3)Zizelkaritzan=escultura.(4)Olerki=poesia.(5)Eraman ona edo jakin zaletasunean = filosofia.(6)Antzerkian=teatro. (7) Kor-zira = gaur Korfu dana.(8) Medikaseko guda. (9)Periklesen denborak ziran oneik. (10) K.a. 382 336, Pausaniasek il eban. (11) K.a. 356 323ra bizi, eta 336an erre-getzara igon.

Euskaldun barrientzat ikasten

Zazpi utsak



ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar


..... kalean (auzoan)..... zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN "ZER". Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!



- Anteron txamarrotia,
Sinkerren bibotia
Aretxek ei dauko,
ei dauko,
preso tximinoia.

Lekeitio